



AGINDUA, EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMENEN SAILBURUARENA, ZEINAREN BIDEZ HASIERA EMATEN BAITZAIO ISTRIPU LARRIETAN GAI ARRISKUTSUAK TARTEKO DIRENEAN SORTZEN DIREN ARRISKUEI BURUZKO INFORMAZIO-, EBALUAZIO- ETA KONTROL-ARAU BIDEARI BURUZKO AGINDU-PROIEKTUA EGITEKO PROZEDURARI.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2006ko ekainaren 15eko Agindua (Substantzia arriskutsuek esku hartzen duten istripu larrien prebentzioarekin zerikusia duten dokumentazioari, ebaluazioari eta ikuskatzeei buruzkoa –uztailaren 12ko EHAA, 132. zk.–) indarrean jarri zenetik, arlo horretako araudiak aldaketa handiak izan ditu.

2012an eman zen 2012/18 (EB) Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2012ko uztailaren 4koa, substantzia arriskutsuak tarteko diren istripu larrien berezko arriskuak kontrolatzeari buruzkoa, zeinaren bidez aldatu eta, gerora, indargabetu baitzen 96/82 (EE) Zuzentaraua. 2015ean, berriz, Europako arau horren transposizioa onartu zen, 840/2015 Errege Dekretua, irailaren 21ekoa, substantzia arriskutsuak tartean diren istripu larriei loturiko berezko arriskuak kontrolatzeko neurriak onartzekoa.

Bi xedapen horiek birdefinitu dute zein norabidetan gauzatu behar den arlo horretako araudi juridikoa. EAEko araudia, hortaz, eguneratu egin behar da esparru juridiko berrira. Gainera, ez da soilik xedapen horien transposizioa edo erreprodukzioa egin behar; aldiz, araudi-espazio propio batean kokatzen da, eta eremu horretatik erantzun beharko die EAEko testuinguruko beharrian espezifikoei.

Eskumenei dagokienez, arau-proiektu hau segurtasun industrialaren arlokoa da, horren bitartez jarriko baitira araupean arlo horretako alderdi teknikoak eta erraz bereizi daitezkeenak arlo horrekin zerikusia izan dezaketen beste alderdi batzuetatik –esaterako, segurtasun publikokoetatik–. Hori dela eta, prozedurari hasiera eman zaion proiektua Segurtasun industrialari buruzko ekainaren 30eko 81/2020 Dekretuaren (uztailaren 14ko EHAA, 137. zk.) barnean kokatuta dago; dekretu horrek, bere aldetik, bosgarren xedapen gehigarrian aitortzen du hizpide ditugun ekonomia-jardueretan jarraitu beharreko hasiera-araubide berezia.

Proiektu hau orokorra izatekoa denez, efikazia-printzipioaren arabera egituratu beharko da nahitaez, printzipio horren mende baitaude administrazio publikoak Konstituzioaren aginduz. Horrenbestez, printzipio horrek baldintzatuko du zer zehaztasun-maila izango duen proiektuaren xedeko arloaren gaineko araudiak eta diskrezionalitate-espaziorik egongo den, Zuzenbideari erabat lotuta, betiere, unean uneko kasuaren berezitasunen araberrako tratamendu juridiko espezifikoa emateko.

Administrazio-kargak sinpletzea eta murriztea izango da, bestalde, Agindua egiteko prozeduraren gidalerro nagusia (baita, era berean, administrazio elektronikoari bultzada emateko ahalegina ere).

Donostia kalea 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ



Ekainaren 30eko 81/2020 Dekretuaren erregelamendu-garapena, eta, zeharka, Euskal Autonomia Erkidegoko Industriari buruzko azaroaren 12ko 8/2004 Legearena, Konstituzioak ezarritako eskumenen banaketak hemen zehaztutako erregelamendu-ahala baliatzeari ezartzen dizkion muga barruan garatuko da.

Horren guztiaren ondorioz, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 4. eta 5. artikulua betez eta Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazioaren zuzendariaren proposamenez, honako hau ebatzi dugu:

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Hasiera ematea lstripu larrietan gai arriskutsuak tarteko direnean sortzen diren arriskuei buruzko informazio-, ebaluazio- eta kontrol-araubideari buruzko agindu-proiektua egiteko prozedurari, eta zuzenbidean eta agindu honen eranskinean jasotako gidalerroetan oinarrituta egon dadila agintzea.

Bigarrena.- Prozeduraren instruktore kargurako izendatzea Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazioaren zuzendaria, organo honi dagozkion arduren kalterik gabe.

Vitoria-Gasteizen, sinaduran ageri den egunean.

MARIA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI

**EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMENEN
SAILBURUA**

ERANSKINA

Agindu-proiektua prestatzeko, honako premisa hauek hartu beharko dira kontuan:

- Lehen aipatutako printzipioetara egokitu beharko du arauak, eta egoki erantzun beharko die sailaren antolamendu- eta ordenamendu-premiei, baita haren eraginpean diren gainerako subjektuen eskariei eta premiei ere juridikoki zein materialki bideragarria izan daitekeen guztian.
- Arauaren edukia bat etorriko da Konstituziotik, bete beharreko nazioarteko itunetatik, Autonomia Estatututik eta edukiari loturiko xedapenak dituzten hierarkia-maila bereko edo handiagoko arauetatik eratorritako eskumen-banaketa-araubidearekin.

Bereziki, ordenamendu juridikoak ahalmen legegileari jarritako mugak bete beharko ditu, baita oinarrian duen Dekretutik datozen mugak ere.

- Xedapenaren asmoa da istripu larrietan gai arriskutsuak tarteko direnean sortzen diren arriskuei buruzko informazio, ebaluazio eta kontrolaren lege-esparrua berritzea, eta, horretarako, objektu berarekin indarrean dauden balizko xedapenen eduki arautzailea harmonizatu nahi du, eta arau berriak xedatzen denaren aurka doazenak indargabetuko ditu. Zuzendaritza sustatzaileko zerbitzu juridikoek egin ditzaketen oharrak gorabehera, testuan sartuko dira Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2006ko ekainaren 15eko Aginduaren (Substantzia arriskutsuek esku hartzen duten istripu larrien prebentzioarekin zerikusia duten dokumentazioari, ebaluazioari eta ikuskatzeei buruzkoaren) arau-edukietako batzuk, eta arau berriak indargabetu egingo du agindu hori.
- Ez da espero Aginduak zuzenean eragingo dienik EAEko aurrekontu orokorreari. Hala eta guztiz ere, memoria ekonomiko bat gehituko zaio proiektuari, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren Legearen (8/2003, abenduaren 22koaren) 10.3 artikuluan aipatzen diren alderdiak jasotzeko.
- Proposatutako araudiak honako alderdi hauek jasoko ditu, besteak beste: informazio-betebeharren araubidea, segurtasun-txostenen ebaluazioaren araudia eta etorkizuneko arauaren aplikazio-esparruko establezimenduen kontrol-modalitateen antolamendua.
- Proiektuak xede duen arloa, arau-maila eta herritarren legezko interesetan duen eragina kontuan hartuta, hura eratzekeko prozedurak izapide, kontsulta eta txosten hauek jasoko ditu (horietatik ondorioztatuko dira arauaren zuzentasuna eta legezkotasuna eta araua Agindu honen edukiarekin bat etortzea berraztertuko duten irizpide arautzaileak):

1. Hasiera-fasea:

- Arauaren testua egin aurretik, kontsulta publikoa egin behar da. Horretarako, iragarki bat emango da argitara EAEko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan, proiektuaren eraginpean diren herritarren iritzia biltzeko, baita legezko interesak edo eskubideak dituzten pertsonen ordezkari diren elkarteena eta erakundeena ere, horien helburuak arauaren xedearekin lotura zuzena duten heinean. Gai hauen gainean eman beharko da iritzia: a) ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak; b) onartzearen premia eta egokitasuna; c) arauaren helburuak; eta, d) aukera arautzaileak eta ez-arautzaileak. Horretarako, xede horietarako xedatutakoa bete beharko da; zehazki, Gobernu Kontseiluaren Erabakia, Xedapen Orokorrak egiteko Prozedura aplikatzeko jarraibideak onartzekoa, abenduaren 12ko 132/2017 Ebazpenaren bidez argitaratua.

- Agindu hau argitara emango da *Legesareazagutza* partekatutako lankidetzagunean, baita Legegunean ere; horietara *Irekia* bidez sartu ahal izango da. *Tramitagune* izapide-tresna elektronikoa erabiliko da argitalpen horiek modu automatizatuan egiteko, aipatu guneetan argitaratutako informazioa bat etor dadin.

- Genero-inpaktuari buruzko txostena egingo da, edo, bestela, genero-ikuspegitik garrantzirik ez izatearen justifikazio-txostena. Horiek genero-

inpaktuaren aurretiazko ebaluazioa egiteko eta emakumeen eta gizonen artean berdintasuna sustatzera eta desparekotasunak desagerraraztera bideratutako neurriak txertatzeko jarraibideen arabera egingo dira. Jarraibideok Gobernu Kontseiluaren erabakiz onartu, eta Eusko Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren abuztuaren 21eko 40/2012 ebazpenaren bitartez eman ziren argitara.

2. Instrukzio-fasea:

- Proiektuaren testua idazteari ekingo zaio, gerora eskumena duen saileko titularren onespena jasotze aldera.

- *Tramitagune* izapide-tresna elektronikoa erabiliko da instrukzio-fasean.

- Zerbitzu juridiko eskumendunak enpresak eratzearen, martxan jartzearen eta funtzionamenduan egotearen inpaktu-ebaluazioaren txostena egingo du, EAEko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiei laguntzeko ekainaren 28ko 16/2012 Legearen 6. artikuluan ezarritakoaren arabera.

- Proiektua entzunaldi-izapidearen eta jendaurreko informazioaren mende jarriko da, Xedapen Orokorrak egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 8. artikuluan xedatutako baldintzen eta zehaztapenen eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan ezarritakoaren arabera.

- Nahitaezko txostenak eta kontsulta-organoen irizpenak eskatuko dira izapide hori arautzen duten xedapenek ezarritako unean eta eran.

- a) Saileko zerbitzu juridikoak txosten juridikoa egingo du proiektuaren oinarri objektiboa aztertzeko, edukia legearekin eta zuzenbidearekin bat datorren ikusteko, eta araugintza teknikaren jarraibideak betetzen diren egiaztatzeko, Xedapen Orokorrak egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 7.3 artikuluan xedatutakoari jarraituz.

- b) Kultura Sailaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren txostena, xedapen orokorrekin euskararen erabileraren normalizazioan zer eragin duten eta hizkuntza-arloan indarrean dagoen araudia betetzen duten ala ez argitzeko, azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuan agindutakoari jarraikiz, Xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen baita dekretu horretan.

- c) Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostena, erregelamendu-xedapenenaren eduki ekonomikoa egiaztatzen duena, urriaren 31ko 464/1995 Dekretuaren 41.2. artikuluan ezarritakoaren arabera (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren barneko ekonomia-kontrolari eta kontabilitateari buruzkoa), ekainaren 30eko 14/1994 Legearen 25. artikuluari dagokionez (Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzkoa).

- d) Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzaren legezketasun-txostena, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko urtarilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 15.1.c) artikuluan ezarritako baldintzetan.

3. Onarpen-fasea:

- Espedienteak atxikita izango ditu hasierako agindua, dokumentazioa, azterlanak eta egindako kontsultak.

- Halaber, prozedura osoaren memoria laburtua eta memoria ekonomikoa gehituko dira. Horietan, berariaz aipatu beharko dira Xedapen Orokorrak egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 10. artikulua eta 3. apartatueta xedatutako alderdiak.

- *Tramitagune* izapide-tresna elektronikoa erabiliko da onarpen-fasean.

- Ez dago inolako izapiderik egin beharrik Europar Batasunaren aurrean.
- Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuak onartu beharreko arau-ekimenaren azken testua bi hizkuntzetan idatzi beharko da (euskaraz eta gaztelaniaz), lege, legegintzako dekretu, dekretu edo aginduaren forma hartzen duten xedapen orokorrak bi hizkuntzetan egiteko neurriak onartzen dituen Jaurlaritzaren Kontseiluaren 2013ko maiatzaren 14ko Erabakian xedatutakoa aplikatuz.